

Jaiotzak %0,9 gehitu ziren 2010eko hirugarren hiruhilekoan

Batez beste, ezkontutako emakumeak bi urte geroago amatzen dira ezkongabeak baino

2010eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEn jaiotako haur kopurua 5.259ekoa izan zen, iazko aldi berean baino %0,9 gehiago, Eustaten datuen arabera. Bizkaian 2.680 haur jaio ziren, %0,4 gutxiago; Araban 802, %4,6 gehiago; Gipuzkoan 1.777, %1,3 gehiago.

Lau jaiotzatatik hirutan amak 30 urte baino gehiago zituen

Jaiotzak amaren adinaren arabera banatzen baditugu, ikusiko dugu 30-34 urteko amen taldea oraindik ere nagusi dela argi eta garbi, haien artean gertatu baitziren erditzeen %43,3. Ondoren, goragoko taldea dago, hau da, 35-39 urte artekoa (%29,3); 25-29ko taldea beherago geratu da, erditzeen %15,5 ekarri baititu. Muturreko adinak dituzten taldeetan, 25 urtez behera amatzen direnak %6,2 dira, eta 40 urtez gorako taldean jaiotzen %5,7 gertatu da.

Ezkontzaz kanpoko jaiotzak %32,8 izan ziren, aurreko urteko aldi berean bezalatsu. Ama ezkongabeen batez besteko adina, 31,2 urte; dibortziatu eta alargunena, 35 urte baino zertxobait gehiago. Hiruhileko honetan, batez beste, ezkontutako amak bi urte gehiagorekin amatu dira ezkongabeak baino.

Atzerritarrak 4,4 urte lehenago amatzen dira espainiarrak baino

2010eko udako hiletan Euskal AEn amatutakoen arteko %15,8 atzerritarrak ziren. Ehuneko horren gainetik Araba, %22,9. Bizkaian %15,1 eta Gipuzkoan %13,7.

Amatzeko adina aldatu egiten da naziotasunaren arabera. Atzerritarrena, 28,9 urte batez beste; espainiarrena, 33,3.

Bigarren eta hurrengo haurrak %2,3 ugaritu ziren

Jaiotza-hurrenkeraren arabera, 2010eko hirugarren hiruhilekoan, erdiak baino gehiago, 2.994 haur, lehenengo seme-alabak izan ziren; 1.871 haur (%36) aurretik beste bat zegoen familietara iritsi ziren; hirugarren eta ondorengo seme-alabak, %7. Bizkaian (%40), bigarren eta ondorengo seme-alaben kopurua Euskal AEko batez bestekoa (%43) baino txikiagoa izan zen, eta hori herrialde horretan baino ez zen gertatu.


2009ko hiruhileko beraren aldean %2,3 hazi zen bigarren eta ondorengo batez besteko hazkundea. Araban oso nabarmen, %20; Gipuzkoan %6,9; Bizkaian %-5,3.

1. taula: Euskal AEn bizi den ama batengandik bizirik jaioak. Alderaketa taula.

	2010eko 3. hiruhil.		Aurreko hiruhilekoa (2010eko 2. hiruhil.)		Aurreko urteko hiruh. bera (2009ko 3. hiruhilekoa)	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Euskal AE	5.259	100,0	5.254	100,0	5.214	100,0
Araba	802	15,3	876	16,7	767	14,7
Bizkaia	2.680	51,0	2.584	49,2	2.692	51,6
Gipuzkoa	1.777	33,8	1.794	34,1	1.755	33,7
Amaren adinaren arabera	5.259	100,0	5.254	100,0	5.214	100,0
≤ 24 urte	326	6,2	328	6,2	360	6,9
25 - 29 urte	816	15,5	830	15,8	828	15,9
30 - 34 urte	2.275	43,3	2.218	42,2	2.276	43,7
35 - 39 urte	1.542	29,3	1.605	30,5	1.506	28,9
≥ 40 urte	300	5,7	273	5,2	244	4,7
Amaren egoera zibilaren arabera	5.259	100,0	5.254	100,0	5.214	100,0
Ezkondua	3.536	67,2	3.548	67,5	3.515	67,4
Ezkongabea	1.723	32,8	1.706	32,5	1.699	32,6
Jaiotza-hurrenkera	5.259	100,0	5.254	100,0	5.214	100,0
Lehenengoa	2.994	56,9	2.877	54,8	3.001	57,6
Bigarrena	1.871	35,6	1.947	37,1	1.807	34,7
Hirugarrena edo gehiago	394	7,5	430	8,2	406	7,8

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko jaiotzen estatistika

1. grafikoa: jaiotzen hileko mugimendua (100 oinarri=batez bestekoa)



Iturria: EUSTAT. Euskal AEko jaiotzen estatistika

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: +34-945-01 75 49 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko JAIOTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua